DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Etxegintza
Vivienda

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN JABETZAKO BABES OFIZIALEKO HIGIEZINETAKO GORAGAILUEN PREBENTZIOZKO MANTENTZE ETA MANTENTZE ZUZENTZAILEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

AURKIBIDEA

1. ARTIKULUA.- OBJEKTUA 3
2. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN MODALITATEA 3
3. ARTIKULUA.- MANTENDU BEHARREKO INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA 3
4. ARTIKULUA.- APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA 4
5. ARTIKULUA.- LANEN DESKRIBAPENA 4
5.1. PREBENTZIOZKO MANTENTZEA 5
5.2 MANTENTZE ZUZENTZAILEA 6
5.3. BESTELAKO LANAK 7
5.4. PRESTATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 7
5.5. OHARRAK ETA MATXURAK 10
6. ARTIKULUA.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN EZAUGARRIAK 10
6.1. BALDINTZA OROKORRAK 10
6.2. ORGANIGRAMA, PLANTILLA ETA DEDIKAZIOA 11
6.3. MAKINERIA ETA TRESNERIA. 12
7. ARTIKULUA.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK 12
8. ARTIKULUA.- SEGURTASUN NEURRIAK 13

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

1. ARTIKULUA.- OBJEKTUA

Kontratuaren objektua da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako babes publikoko etxebizitzetako higiezinetan dauden goragailuen mantentze tekniko integraleko zerbitzuak eta prebentziozko kontserbazioko eta kontserbazio zuzentzaileko zerbitzuak egitea (eskulana eta materialak barne).

2. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN MODALITATEA

Agiri honetan aintzat hartzen den zerbitzu maila “arrisku orotako mantentzea” motakoa izango da, eta aplikatzekoa izango da kontratuaren objektu diren goragailu guztien mantentze lanetarako.

Lanen xedea da goragailuen elementu guztiak berrikustea, egiaztatzea, doitzea eta mantentzea.

Lan horiek pertsonal kualifikatu egokiak egin beharko ditu, funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren erreminta eta neurketa tresnak erabiliz.

3. ARTIKULUA.- MANTENDU BEHARREKO INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA

Agiri honen I. eranskinean zerrendatzen dira igogailuak, sortatan sailkatuta eta haien ezaugarri teknikoak adierazita.

Era berean, hala eskatzen duten lizitatzaileen eskura jarriko da mantendu beharreko igogailuei buruz Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoan dagoen dokumentazio teknikoa.

Enpresa adjudikaziodunak lizitazio eguneko baldintzetan onartuko ditu goragailuak, edozein egoeratan daudela ere. Horregatik, lizitatzaileek igogailuen egoeraren berri izan ahal izango dute eskaintza idatzi aurretik, eta, horretarako, baimena eskatuko diote Donostiako Etxegintzari kontratuaren objektu diren instalazioen eraikinetako egoitzetara sartzeko, betiere instalazioen funtzionamendu normala eragozten ez badute.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

4. ARTIKULUA.- APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

Zerbitzua egitean, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren objektuari aplikatzekoak zaizkion indarreko legezko eskakizunak eta araudiak bete behar ditu (nazionalak, autonomikoak edo tokikoak), baita kasuan-kasuan aplikatzekoa den araudi oro ere. Ondoren, xedapenen zerrenda ez zehatza erantsi da, erreferentzia gisa:

- 57/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, egungo igogailu parkearen segurtasuna areagotzeko preskripzioak ezartzen dituena.
- 1644/2008 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, makinak merkaturatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzen dituena.
- 88/2013 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, 2291/1985 Errege Dekretuak, azaroaren 8koak, onartutako goragailuen eta horien mantentze lanen araudiko "igogailuak" ITC AEM1 instrukzio osagarria onartzen duena, baita xedapen osagarriak eta iragankorrak ere.
- Ebazpena, maiatzaren 10ekoa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, igogailuen aldizkako ikuskapenak eta igogailuen mantentze eta zaintza lanak egiteko prozedura zehazten duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2002ko ekainaren 7ko Aginduko eranskinak moldatzen dituena.
- 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuak mantendu eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzen duena, eta ondorengo eranskinak, Segurtasun industrialaren Dekretuak (82/2020 Dekretuak, ekainaren 30ekoak) aldatua.
- 203/2016 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, igogailuak eta igogailuetarako segurtasun osagaiak merkaturatzeko segurtasuneko funtsezko baldintzak ezartzen dituena.
- UNE EN 13015:2002 +A1: 2008. Igogailuak eta eskailera mekanikoak mantentzea. Mantentze jarraibideetarako arauak.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko eta ingurumenaren arloko legeria.
- Aplikatzekoak diren hitzarmen sektorialak.

5. ARTIKULUA.- LANEN DESKRIBAPENA

Prestazioen irismenaren barruan sartzen da instalazioen funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren mantentze lan guztiak egitea, fidagarritasun, segurtasun eta sendotasun maila handia berma dadin, betiere aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen xedapenen arabera.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Horrez gain, zerbitzu horrek garatuko dituen lanak lagungarriak izango dira istripuak eta/edo pertsonak arriskuan jar ditzaketen egoerak eragin ditzaketen akatsak eta matxurak gutxitzeko.

Instalazio horiek etengabe egon beharko dute operatibo, haien diseinuan esleitu zaien funtzioa berehala bete dezaten.

Era berean, aparatuen eta sistemen degradazioa saihesteko eragiketak egin beharko dira, bizitza baliagarria luza dadin, bete beharreko baldintzetan.

Donostiako Etxegintza bitarteko eta teknologia berrien jakinaren gainean egongo da, eta, bereziki, gai horri buruzko legedian gertatzen den edozein aldaketaren jakinaren gainean.

"Dena barne" motako prebentziozko mantentzearen eta mantentze zuzentzailearen barnean hartzen duen kontratua denez gero, 5/2014 Dekretuan deskribatutako gutxieneko prebentziozko mantentzeko esku hartzeak —baita deskribatu gabeko lanak ere— zehazten dituen dokumentu bat entregatuko da.

5.1. PREBENTZIOZKO MANTENTZEA

Adjudikaziodunak prebentziozko mantentzeari dagozkion berrikuspen eta egiaztapen guztiak egingo ditu, bai indarrean dagoen araudian hala ezarrita egoteagatik, bai igogailuen ezaugarrien eta egoeraren arabera gomendagarriak izateagatik. Edonola ere, igogailuak mantentzeko eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzen duen urtarrilaren 28ko 5/2014 Dekretuan zehaztutako mantentze lanen berrikuspenen gutxieneko irismena beteko du.

Adjudikaziodunak prestatu eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak onartu beharko duen plan baten arabera egingo da prebentziozko mantentzea.

Plan hori kontratuaren barruan berrikusi ahal izango da, baldin eta plana osatu gabea edo akastuna dela egiaztatzen bada. Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da plana etengabe eguneratuta egotea.

Adjudikaziodunak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu prebentziozko mantentzeak ahalik eta eraginik txikiena izan dezan eraikinen eta erabiltzaileen ohiko funtzionamenduan.

Adjudikaziodunak laguntza teknikoa emango dio Etxebizitza Erakundeari egin beharreko arauzko ikuskapen guztietan, nola Erakundeak berak eskatuta egiten diren ikuskapenetan, hala

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

agiri honen objektu diren instalazioen gaineko eskumena duen edozein erakunde ofizialek eskatuta egiten diren ikuskapenetan.

Halaber, laguntza teknikoaren kontzeptu horren barruan sartzen da adjudikaziodunak duen dokumentazio grafikoa eta idatzia etengabe eguneratzeko betebeharra.

5.2 MANTENTZE ZUZENTZAILEA

5.2.1. Adjudikaziodunak hitzematen du baldintza teknikoen agiri honetan zehaztutako igogailuen egoera eta funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren konponketa eta berritze lanak egingo dituela. Horregatik, bere gain hartzen du bere ardurapeko instalazioen konponketaren gaineko erantzukizun osoa eta erabatekoa, bai higadura normalaren ondoriozkoa denean, bai ezohiko higaduraren ondoriozkoa denean —higaduraren kausa edozein dela ere—.

5.2.2. Konponketa zerbitzu hori erabateko bermearekin egiteak berekin dakar adjudikaziodunak bere kargura egin behar izatea igogailuen egoera eta funtzionamendu egokia etengabe ziurtatzeko beharrezkoak diren esku hartze eta konponketa guztiak —materialen eta ordezko piezen kostua nahiz eskulanaren kostua barne—.

Ildo horretan, adjudikaziodunak betebehar hauek ditu:

- Etengabe eta kontratuak irauten duen bitartean, materialen zerbitzu eta mantentze egoera ona ziurtatzea.
- Erabilitako materialak eta piezak konpontzea eta beste baliokide batzuekin ordeztea, zahartze fisikoaren ondorioz zein ustekabeen ondorioz.
- Konponketa eta birjarpen gastu guztiak bere gain hartzea, barnean direla eskulana, desmuntatzeko eta muntatzeko lanak, garraioa eta erabilitako materialaren kostua.
- Berme osoaren barruko konponketa zerbitzuan dituen betebeharren ondorioz adjudikaziodunak berak egin behar dituen esku hartzeak ahalik eta arreta handienarekin egin beharko dira, eta adjudikaziodunaren erantzukizunpean. Adjudikaziodunak erakunde kontratatzaileari jakinaraziko dio, eta harekin adostuko du, igogailua noiz eten behar den, betiere esku hartze horiek funtzionamendu baldintzetan izan ditzaketen gorabeherak minimiza daitezen.

5.2.3. Lan hauek geratzen dira mantentze zuzentzaileaz kanpo:

- Aparatuaren ohiko funtzionamenduarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik (zabarkeriagatik, bandalismoagatik, aparatuen erabilera okerragatik) hondatutako

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

elementuak konpontzea edo ordeztea; lan horiek Donostiako Etxegintzak aurrekontua onartu ondoren egingo dira.

- Jabetzak eskatutako modernizazioek edo eraberritzeek eragindako lanak eta hornidurak, edo etorkizunean tokiko, probintziako, autonomiako, nazioko edo nazioarteko erakunde ofizialek, aseguru-konpainiek, elektrizitatea hornitzen duten konpainiek eta abarrek eska ditzaketenak, baita adjudikaziodunaz aparteko langileek instalazioan egindako manipulazio frogatuen ondoriozko lanak ere; lan horiek Donostiako Etxegintzak aurrekontua onartu ondoren egingo dira.
- Igogailuei dagokienez, kanpo geratzen dira kabina, panelak, sabaia, eskudelak, zokaloak, beirateak, lurzoruak, gelatxoetako ateak, kanpoko ateak eta elementu apaingarriak ordezteko lanak.

5.3. BESTELAKO LANAK

Preskripzio Teknikoen Agiri honetan mantentze prebentibo edo zuzentzaile gisa jasota ez daudela uste den bestelako lan guztietarako —mantentze zuzentzailearen kasuan, Agiri honetako aurreko 5.2.3 atalean ezarritakoa aplikatzearen ondorioz berariaz baztertuta egoteagatik—, enpresa adjudikaziodunak aurrekontua aurkeztuko du lan horiek egin aurretik; luze eta zabal adieraziko da eskaintzan jasotako eragiketa. Lan horiek egikaritzeko, beraz, eskaintzan jasotako eskulanaren prezioa ordainduko da eta, erabilitako materialei dagokienez, publikoarentzako salmenta prezioari jarraituko zaio, eskainitako deskontua aplikatuta.

5.4. PRESTATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

5.4.1. JARDUKETA PLANA ETA MANTENTZE LIBURUA

Adjudikaziodunak kontratuaren objektu diren lanen jarduketa plan bat egin beharko du, eta plan horretan zehaztuko dira zer eragiketa egin beharko diren berrikuspenetan, egiaztapenetan, doikuntzetan, ordezkapenetan, garbiketetan, baita, oro har, tresneriaren akatsengatik edo kontserbazio txarrarengatik ezustean tresneria geldiaraztea saihesten duten eragiketa guztiak eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko prozedurak ere.

Era berean, lan horiek zer maiztasunekin egingo diren adieraziko da. Matxura edo gorabehera larri eta/edo errepikakorren kasuan, adjudikaziodunak proposatuko du egindako planak berrantolatzea eta, horrela, aurrerantzean gorabehera horiek ez errepikatzea.

Aparaturen bat mantentzearen eta konpontzearen ondoriozko administrazio dokumentazioa

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

bete, eta erakunde ofizialei eta/edo elkargo profesionalei aurkeztu behar zaie; beharrezkoak diren kudeaketa eta gastu guztiak enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Adjudikaziodunak kontratuaren barruan egiten diren esku hartze eta eragiketa guztiak jasoarazi beharko ditu. Horretarako, behar bezala eguneratuko den mantentzeari buruzko datu base bat eduki beharko du, eta, bertan, erregistratuko ditu aparatu bakoitzerako egindako konponketak edo esku hartzeak.

Adjudikaziodunak igogailu bakoitzerako eguneratuta izango du mantentze liburua, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz. Liburu horretan, gutxienez, honako gorabehera hauek jaso beharko dira:

- Prebentziozko mantentzerako bisitaldiak.
- Prebentziozko esku hartze kondizionalak eta zuzentzaileak.
- Eragiketa mota.
- Egindako piezen ordezkaketak.
- Gorabeheraren komunikazioaren eguna eta ordua.
- Konponketari hasiera eman zaion eguna eta ordua
- Bere ekimenez edo Erakundearen ekimenez egindako aldaketak eta lanak.
- Matxura.
    - Matxuraren kausa.
    - Matxura konpontzeko denbora.
    - Geldialdia, beharrezkoa balitz.
    - Konponketaren deskribapena.
    - Erabilitako eskulana.
    - Erabilitako materialak.
    - Urtean tresneriak izandako matxura kopurua.
    - Oharrak.

Mantentze liburuak eta preskripzio teknikoen agiri honen objektu diren instalazio guztien jarraipen dokumentuak beti egongo dira Erakundearen eskura, kontsulta ditzan.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

5.4.2. INBENTARIOA

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak idatziz jakinaraziko dio enpresa adjudikaziodunari instalazioen zerrendan gertatzen den aldaketa oro, betiere Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako eraikinetako edozein goratze elementuri alta edo baja emateagatik.

Enpresa adjudikaziodunak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Mantendu beharreko instalazioen inbentarioa egiteko konpromisoa —inbentarioa formatu eramangarrian egingo du, Excel liburua—.Donostiako Etxegintzak adjudikaziodunari emango dio mantendu beharreko tresnerien inbentarioa, baina adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da lanei hasiera ematean inbentarioa berrikustea eta, beharrezkoa balitz, eguneratzea, mantendu beharreko elementuen errealitatea jaso dezan.

- Inbentario hori eguneratuta mantentzeko eta automatikoki manipulatzeko konpromisoa (paperean ondo, baina euskarri digitalean ere bai, erakundearen sistema informatikoekin bateragarriak diren baldintzen arabera). Helburua izango da honako alderdi hauei buruzko txostenak lortzea: txosten historikoa, egoera, mantentze planak betetzea, hurrengo eragiketen egutegia, ekipamenduen birjarpen kostuen plangintza eta mantentze lanak kudeatzeko lagungarri izan daitezkeen beste datu batzuk.

- Instalazioetan erabiltzeko proposatutako ordezko pieza guztiak jatorrizko markakoak izango dira; arrazoi justifikatuak tarteko hala izan ezean, horien parekoak izango dira kalitatean, eta instalatu aurretik Donostiako Etxegintzaren oniritzia izan beharko dute.

- Enpresa lizitatzaileek beharrezkoak eta behar bestekoak diren ordezko piezak izan beharko dituzte, ordezko elementurik ez egoteagatik funtzionatu gabe egon ez daitezen. Lizitazio fasean, zerbitzuaren jarraitutasuna eta ezarritako erabilgarritasuna ahalbidetzeko metatu beharreko ordezko piezak eta material suntsikorra jasoko duen zerrenda bat entregatuko da —pieza eta material hori kontserbazio enpresak izango duen lokal batean egongo da—.Ordezko piezen eta material suntsikorren zerrenda hori eskaintzaren irismenaren barnean hartuko da eta eskaintzaren parte gisa eman beharko da.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

5.5. OHARRAK ETA MATXURAK

Lan ordutegiez kanpoko matxura zerbitzuetarako, enpresa adjudikaziodunak 24 orduko asistentzia zerbitzu iraunkorra eskainiko du (jaiegunak barne). Asistentzia zerbitzu hori gai izango da edozein goragailuren arazori erantzuteko, baita haietan harrapatutako pertsonak erreskatatzeko ere, beti behar adinako segurtasun bermeekin. Etengabeko zerbitzurako telefono bat eduki beharko du, arestian aipatutako kontingentziak jasoko dituena, baita beharrezko kualifikazioa duten behar adina langile ere, norbait harrapatuta geratu dela jakinarazi eta gehienez 30 minutuko epean ateratzeko —gainerako gorabeheretan gehienez 2 orduko epea izango da arazoa konpontzeko—.

Adjudikazioduna izango da ordezko piezen faltagatik zenbatetsitako epearen barruan konpondu ezin diren matxuren erantzulea.

Tresneriek bandalismoaren ondoriozko kalteak jasaten badituzte, Erakundeak bere gain hartuko du konponketaren kostua, betiere ezbeharraren ondorengo 72 orduen barruan aurkeztutako aurrekontua onartu ondoren, hala badagokio.

Kaltearen eraginez tresneria gelditu behar bada, enpresa adjudikaziodunak 48 orduko epean aurkeztu beharko du konponketa eskaintza. Konponketa egiten den bitartean, eta behin-behinean, ekipamendua martxan jarraitzeko beharrezkoak diren behin-behineko elementuak jarriko ditu, ahal izanez gero.

Arreta zerbitzuko langileek gai izan beharko dute deiei Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan erantzuteko. Era berean, adjudikaziodunak, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egindako panelen bidez, jakinaraziko die erabiltzaileei instalazioak matxuren ondorioz gelditu izana eta mantentze lanetako berrikuspenen ondorioz gelditu izana; modu berean emango die berrikuspenen erregistroen berri.

6. ARTIKULUA.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN EZAUGARRIAK

6.1. BALDINTZA OROKORRAK

Enpresa adjudikaziodunak, kontratuaren indarraldi osoan, altan egon behar du Eusko Jaurlaritzaren edo Estatuko beste administrazio baten mendeko Goragailuak Kontserbatzeko Enpresen Erregistroan.

Enpresa adjudikaziodunak kontratatu den lanera egokitutako antolamendua eta baliabide teknikoak izan beharko ditu; horretarako, gutxienez, kapitulu honetan garatzen diren funtzionamenduko eta antolamenduko bitarteko teknikoak eta giza bitartekoak izan beharko ditu.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Enpresa adjudikaziodunak ezin izango du inola ere alegatu, lanak atzeratzearen edo behar bezala ez egitearen kausa gisa, agiri honek ezartzen duen gutxieneko plantilla nahikoa ez izatea.

6.2. ORGANIGRAMA, PLANTILLA ETA DEDIKAZIOA

Lizitatzaileek egin nahi duten zerbitzuaren organigrama osoa aurkeztu beharko dute beren eskaintzan, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren eskura jartzen duten sorta bakoitzeko gutxieneko giza taldea zehaztu beharko dute. Giza talde hori hurrengo paragrafoko eskakizunetara, gutxienez, egokituko da:

Enpresa adjudikaziodunak gutxienez honako giza bitarteko hauek izan beharko ditu:

1. Enpresa adjudikazioduneko arduradun goren bat, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin sortzen diren harremanetan solaskidea izango dena, eta, aldi berean, zerbitzuari atxikitako teknikari tituludunetako bat izan daitekeena —teknikari horrek erdi mailako teknikariaren titulua izango du gutxienez—.Edozein unetan eskatu ahal izango da teknikari horren presentzia, lanaldiaz kanpo ere bai, kontraturako dedikazio osoa izango baitu.
   Arduradunaren zereginen artean daude:
   - Mantentze zuzentzailea egingo duten teknikarien lana gainbegiratzea, kudeatzea eta kontrolatzea, desplazamendu denborak minimizatzeko eta konponketa denborak optimizatzeko, gertatzen diren matxuren kopuruaren eta ezaugarrien arabera.
   - Prebentziozko mantentzea egingo duten teknikarien lana gainbegiratzea, kudeatzea eta kontrolatzea, eta, horretarako, aurreikusitako berrikuspen sortak egiteari arreta berezia jartzea eta zeregin horiei esleitutako bitartekoen murrizketa behar besteko aurrerapenez planifikatzea eta ebaztea.
   - Beharrezkoa izanez gero, Donostiako Etxegintzarekin koordinatzeko bileretara bertaratzea.
   - Donostiako Etxegintzako teknikariei zerbitzuaren gorabehera eta berezitasunen garrantzia jakinaraztea.
   - Ordezko pieza suntsikorrak gainbegiratzea, kudeatzea eta kontrolatzea, agiri honetan zehaztutako erantzun denborak bermatzeko beharrezkoak diren izakinak ziurtatuz. Kontratuaren iraupen epean, bere gain hartuko du enpresa adjudikaziodunaren ordezkaritza teknikoa.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Arduradun horren izendapen izenduna idatziz jakinaraziko zaio Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari, zerbitzua egiten hasi aurretik.

2. Arduradun orokorra, beharrezko lanbide kualifikazioa izango duena (Lanbide Heziketako 2. mailako titulazioa gutxienez).
3. Mantentzeko lehen mailako ofiziala.
4. Lehen mailako ofizial batek eta langile batek osatutako lan taldea, zaintalde zerbitzua egingo duena, aurreko teknikarien lanaldiaz kanpoko matxurei erantzuteko.
5. Mantentzen eta kontserbatzen ari diren igogailuei buruzko planoetan, behar den dokumentazio tekniko guztia prestatzeko gaitutako teknikaria.

Taldeetako langileentzat eskatzen den titulazio akademikoa edozein izanik ere, langile kualifikatuek instalazio espezifiko bakoitzerako eskatzen diren lanbide txartelak edukiko dituzte. Enpresa kalifikazioko dokumentuek zein eskatutako lanbide txartelek baimenduta egon beharko dute, eta Eusko Jaurlaritzan erregistratuta.

6.3. MAKINERIA ETA TRESNERIA.

Enpresa adjudikaziodunak agiri honetako eskakizunak betetzeko behar diren elementu eta tresna guztiak eduki beharko ditu, bai erremintei dagokienez, bai zerbitzugintzaren dinamika funtzionalaren eta operatiboaren ondorioz kontratatu behar dituen tresneriei dagokienez.

Agindutako mantentze eta kontserbazio lanak behar bezala egite aldera, enpresa adjudikaziodunak makineria eta bitarteko osagarriak azpikontratatu behar izanez gero, bere kontura eta kostura azpikontratatuko ditu, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari ezingo zaio inola ere eskatu kontratatutako bitarteko horien ondoriozko inolako zenbateko ordaintzea.

Tailerra behar bezala hornituta eta egituratuta egongo da, enpresaren bitarteko osagarri guztiak barnean har daitezen.

Talde guztiek edukiko dituzte erreminta, neurketa tresna eta elementu osagarri egokiak.

Biltegian, materialen eta ordezko piezen kopuru egokia izango da uneoro biltegiratuta, lanei zehaztutako denboran erantzun dakien.

7. ARTIKULUA.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, euskarazko eta gaztelaniazko azalpen mezuarekin batera.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Piktograma bidez egitea ezinezkoa bada, elebidun egingo dira, eta euskarak izango du lehentasuna.

8. ARTIKULUA.- SEGURTASUN NEURRIAK

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, kontratistak indarrean dagoen araudiak zehazten duena beteko du.

Langileek jarduteko prozedurak eta arauak bete beharko dituzte, eta, bereziki, makina, erreminta, instalazio, produktu arriskutsu eta norbera babesteko ekipamenduen erabilera egokiari dagozkionak. Laneko istripuak, lanbide gaixotasunak eta kalte materialak murrizteko beharrezkoak diren lan jarduerek edo ohiturek arau eta prozedura espezifikoen mende egon beharko dute, baita erremintak, makinak edo instalazioak erabiltzeko jarraibideek ere.

Era berean, norbera babesteko jantziak eta tresneria arauen arabera erabiliko dira, arlo, eragiketa edo lanpostu bakoitzaren arrisku espezifikoen arabera.

Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunak obren eta mantentze lanen esparrua mugatu beharko du, baldin eta obra eta lan horiek arriskutsuak badira pertsonentzat. Horretarako, beharrezkoak diren babes baliabide eta elementu guztiak erabiliko ditu. Lan eremuak behar bezala isolatu beharko dira eta txartel, barrera, egitura, plastiko eta abar bidez seinaleztatu beharko dira.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

1. ERANSKINA – GORAGAILUEN DESKRIBAPENA

SUSTP.	2020. SORTA	KALEA	Ezkar.	Gorag. Err.	MARKA	GELD. KOP.	PERTS. KOP.	ABIAD. m/s	KARGA (kg)
1004	1	SERAPIO MUJIKA PASEAL.	013	20-00018390	ORONA	10	8	1 m/s	630
1004	1	SERAPIO MUJIKA PASEAL.	015	20-00018393	ORONA	10	8	1 m/s	630
1004	1	SERAPIO MUJIKA PASEAL.	017	20-00018389	ORONA	10	8	1 m/s	630
1004-	1	SERAPIO MUJIKA PASEAL.	019	20-00018394	ORONA	10	8	1 m/s	630
1005	1	LASARTE PLAZA	001	20-00010821	ORONA	5	6	1 m/s	450
1005	1	LASARTE PLAZA	002	20-00010819	ORONA	5	6	1 m/s	450
1005	1	LASARTE,PZ DE	003	20-00010823	ORONA	5	6	1 m/s	450
1005	1	LASARTE PLAZA	004	20-00010822	ORONA	5	6	1 m/s	450
1005	1	LASARTE PLAZA	005	20-00010818	ORONA	5	6	1 m/s	450
1005	1	LASARTE PLAZA	006	20-00010820	ORONA	5	6	1 m/s	450
1015	1	GOIKO GALTZADA BERRI	008	20-00016041	ORONA	5	8	0,63 m/s	630
1015	1	GOIKO GALTZADA BERRI	010	20-00016042	ORONA	5	8	0,63 m/s	630
1015	1	GOIKO GALTZADA BERRI	012	20-00016043	ORONA	5	8	0,63 m/s	630
1015	1	GOIKO GALTZADA BERRI	014	20-00016044	ORONA	5	8	0,63 m/s	630
1020	1	GABRIEL M. LAFITTE PLAZA	003	20-00021699	ORONA	10	8	1 m/s	630
1020	1	NEMESIO ETXANIZ KALEA	001	20-00021698	ORONA	10	8	1 m/s	630
1020	1	NEMESIO ETXANIZ KALEA	003	20-00021701	ORONA	10	8	1 m/s	630
3004	1	MONS PASEALEKUA	005	20-00022116	ORONA	6	8	1 m/s	630
3004	1	MONS PASEALEKUA	005	20-00022119	ORONA	7	8	1 m/s	630
4001	1	ARJEL PASEALEKUA	002	20-00017535	ORONA	7	10	1 m/s	750
4002	1	PINU BIDEA	027	20-00018475	ORONA	5	8	1 m/s	630
4002	1	PINU BIDEA	027	20-00018474	ORONA	5	8	1 m/s	630
4003	1	IGNACIO UGARTE PLAZA	001	20-00022114	ORONA	7	8	1 m/s	630

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

1001	2	BASOTXIKI	001	20-00010460	OTIS	5	4	1 m/s	300
1001	2	BASOTXIKI	003	20-00010461	OTIS	5	4	1 m/s	300
1001	2	BASOTXIKI	005	20-00010458	OTIS	5	4	1 m/s	300
1002	2	BERRABEHEA	004	20-00020810	OTIS	7	8	1 m/s	630
1002	2	BERRABEHEA	006	20-00020811	OTIS	9	8	1 m/s	630
1002	2	CASARES PASEAL.	009	20-00020809	OTIS	7	8	1 m/s	630
1002	2	CASARES PASEAL.	011	20-00020808	OTIS	7	8	1 m/s	630
1007	2	AITA ORKOLAGA PASEAL.	014	20-00021213	OTIS	5	6	1 m/s	450
1007	2	AITA ORKOLAGA PASEAL.	016	20-00021214	OTIS	5	6	1 m/s	450
1011	2	MONS PASEALEKUA	143	20-00010397	OTIS	5	4	1 m/s	300
1011	2	MONS PASEALEKUA	145	20-00010398	OTIS	5	4	1 m/s	300
1012	2	MONS PASEALEKUA	087	20-00011384	OTIS	4	4	1 m/s	300
1012	2	MONS PASEALEKUA	089	20-00011385	OTIS	5	4	1 m/s	300
1012	2	MONS PASEALEKUA	091	20-00011386	OTIS	4	4	1 m/s	300
1012	2	MONS PASEALEKUA	093	20-00011387	OTIS	5	4	1 m/s	300
1019	2	HIRU DAMATXOEN PLAZA	009	20-00022369	OTIS	7	9	1 m/s	675
1019	2	HIRU DAMATXOEN PLAZA	010	20-00022370	OTIS	7	9	1 m/s	675
1021	2	ZARATEGI PASEAL.	071	20-00010459	OTIS	5	4	1 m/s	300
1024	2	ILLARRA BIDEA	010	20-00024953	OTIS	5	8	1 m/s	630
1024	2	ILLARRA BIDEA	012	20-00024954	OTIS	5	8	1 m/s	630
1008	3	KATALINA ELEIZEGI	019	20-00014653	SCHINDLER	4	8	1 m/s	630
1008	3	KATALINA ELEIZEGI	021	20-00014652	SCHINDLER	4	6	1 m/s	450
1008	3	KATALINA ELEIZEGI	023	20-00014651	SCHINDLER	4	6	1 m/s	450
1008	3	KATALINA ELEIZEGI	025	20-00014654	SCHINDLER	4	6	1 m/s	450
1016	3	BASCONGADA PASEAL.	001	20-00022318	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1016	3	BASCONGADA PASEAL.	002	20-00022319	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1016	3	BASCONGADA PASEAL.	003	20-00022320	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1016	3	BASCONGADA PASEAL.	004	20-00022324	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

1016	3	BASCONGADA PASEAL.	005	20-00022325	THYSEEN KRUPP	6	8	1 m/s	630
1016	3	BASCONGADA PASEAL.	006	20-00022322	THYSEEN KRUPP	6	8	1 m/s	630
1016	3	BASCONGADA PASEAL.	007	20-00022321	THYSEEN KRUPP	6	8	1 m/s	630
1017	3	BASCONGADA PASEAL.	008	20-00022334	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1017	3	BASCONGADA PASEAL.	009	20-00022346	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1017	3	BASCONGADA PASEAL.	010	20-00022345	THYSEEN KRUPP	4	8	1 m/s	630
1017	3	BASCONGADA PASEAL.	011	20-00022344	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1017 -	3	BASCONGADA PASEAL.	012	20-00022339	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1017 -	3	BASCONGADA PASEAL.	013	20-00022338	THYSEEN KRUPP	6	8	1 m/s	630
1017 -	3	BASCONGADA PASEAL.	014	20-00022336	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
1022 -	3	ZARATEGI PASEAL.	084	20-00009814	SCHINDLER	5	4	0,70 m/s	300
1022 -	3	ZARATEGI PASEAL.	086	20-00009815	SCHINDLER	5	4	0,70 m/s	300
1022 -	3	ZARATEGI PASEAL.	088	20-00009816	SCHINDLER	5	4	0,70 m/s	300
4004 -	3	BENTABERRI PLAZA	006	20-00022230	THYSEEN KRUPP	6	8	1 m/s	630
4005 -	3	MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUA	022	20-00022624	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630
4005 -	3	MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUA	022	20-00022625	THYSEEN KRUPP	5	8	1 m/s	630